



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (BIGARREN ETA HIRUGARREN ZUTABEA) - LABURPENA.

2018. URTEA

FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1- BGAE-AK 2018KO EKITALDIAN**1.1– BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2018. urtea**

2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan 120 BGAE zeuden. Horietatik, 77k Gizarte Segurantzarekiko prestazio osagarriak ematen dituzte aurreikuspen-planen bidez, eta gainerako 43ek, aurreikuspen-planik gabeko BGAEak osatzen dituztenek, hainbat arrisku mota estaltzen dituzte, hala nola suteak, heriotzak eta bestelakoak.

1. koadroa: BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2018. urtea

MODALITATEA	Erakunde kopurua	%/guztira
BGAEEK aurreikuspen-planekin	77	% 64
Elkartua	2	% 1,7
Enplegua	44	% 36,7
Banakakoa	31	% 25,8
BGAEEK aurreikuspen-planik gabe	43	% 36
Heriotzak	30	% 25,0
Suteak	1	% 0,8
Beste batzuk	12	% 10,0
GUZTIRA	120	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

1. koadro horretan, helburu estatistikoetarako, «BGAEak aurreikuspen-planik gabe» epigrafearen barruan sartuta dauden 43 BGAEak oso erakunde txikiak dira, beheko koadro honetan argi ageri denez.

2. koadroa Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen ez dituzten BGAEen garrantzi erlatiboa.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantze-zifra	%/guztira
BGAEEK aurreikuspen-planekin	77	24.826.018.696,96	% 99,9
Elkartua	2	21.228.524,55	% 0,09
Enplegua	44	13.409.480.995,84	% 53,95
Banakakoa	31	11.395.309.176,57	% 45,86
BGAEEK aurreikuspen-planik gabe	43	23.824.675,12	% 0,10
Heriotzak	30	13.229.246,87	% 0,05
Suteak	1	4.036.016,10	% 0,02
Beste batzuk	12	6.559.412,15	% 0,03
GUZTIRA	120	24.849.843.372,08	% 100,00

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Bere balantze-zifraren ehunekoa, aurreikuspen-planik gabeko BGAE guztien balantze-zifraren guztizkoarekin alderatuz, huskeria da, eta, gainera, arrisku jakin batzuk estaltzen dituzte; ez dute inolaz ere pentsioen sistema publikorako pentsio osagarrien izaera. Hots, BGAE horiek ez dira oro har bigarren edo hirugarren zutabe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.

Txosten honetan, beraz, Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzten 77 BGAEak izango ditugu aztergai, gainerakoek ez baitute interesik Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspen osagarriaren aldetik dagoen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko –gainerako erakundeak ez dira garrantzitsuak, ondare-bolumenari dagokionez (bai, ordea, gizarte-lanari dagokionez)–, aurreikuspen osagarritzat ulertzen badugu pentsio-sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak bideratzeko (nagusiki erretiro-pentsioak) EAEn dauden erakundeen multzoa.

Enpleguko BGAEak 44 dira. Horietatik 40k enpresa dute beren aurreikuspen-planen jardun-eremua, eta 4 BGAE, berriz, sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen baitute barruan: BGAE batek, Mondragon korporazioko kide diren kooperatibak; beste batek, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuei heltzen dieten enpresak; eta bi BGAEk, sektore publikoko langileak (batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak, eta besteak, Foru eta Toki Administrazioak).

Bestalde, banakako 31 BGAEetatik, 5ek 300 milioi eurotik gorako balantze-zifra dute, eta 25.000 bazkide baino gehiago.

1.2.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzeko zifra. 2018. urtea

3. koadroa

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantze-zifra	%/guztira
<u>BGAEEK aurreikuspen-planekin</u>			
Elkartua	2	21.228.524,55	% 0,09
Enplegua	44	13.409.480.995,84	% 54,01
Banakakoa	31	11.395.309.176,57	% 45,90
GUZTIRA	77	24.826.018.696,96	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituen BGAE baten batez besteko balantze-zifra 322 milioi euro zen 2018an. Banakako BGAEen kasuan, batez besteko balantze-zifra 367 milioi euro zen, eta, enpleguaren kasuan, 305 milioi euro. Ikus daitekeenez, banakako BGAEen batez besteko balantzea enpleguaren oso antzekoa da.

1.3.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopurua. 2018. urtea

4. koadroa

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak	% Guztizkoa	Emakumezko bazkideak	% guztizkoa	Bazkideak, guztira
BGAEEK aurreikuspen-planekin						
Elkartua	2	1.267	% 85,15	221	% 14,85	1.488
Enplegu ez lehentasunezkoa	44	279.881	% 57,60	206.055	% 42,40	485.936
Banakakoa	31	353.880	% 54,58	294.474	% 45,42	648.354
GUZTIRA	77	635.028	% 55,91	500.750	% 44,09	1.135.778

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018an, 1.135.778 pertsona zeuden aurreikuspen-planak dituzten BGAEen barruan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, gizonak bazkide kopuru osoaren % 56 ziren; emakumeak, berriz, % 44. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, aldea areagotu egiten da.

2018an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek batez beste 14.750 bazkide zituzten. Banakako BGAEek batez beste 20.915 bazkide zituzten; enpleguen bidez, berriz, 11.044. Nahiz eta banakako BGAEen batez besteko balantzea enpleguen bidez oso antzekoa izan, banakako BGAEen batez besteko bazkide kopurua enpleguen bidez ia bikoitza da.

1.3.1- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen adinak 2018. urtea

5. koadroa

Adin-tartea	Gizonak	Emakumeak	Tartearen arabera guztizkoa	%
Otik 20ra	2.732	2.130	4.862	% 0,4
21.etik 25era.	8.869	6.680	15.549	% 1,2
26tik 30era	20.708	17.571	38.279	% 2,9
31tik 35era	42.598	34.754	77.352	% 5,8
36tik 40ra	75.422	59.856	135.278	% 10,1
41etik 45era.	108.454	83.776	192.230	% 14,4
46tik 50era	108.989	85.448	194.437	% 14,5
51tik 55era	110.126	93.561	203.687	% 15,2
56tik 60ra	104.250	92.203	196.453	% 14,7
61tik 65era	73.940	62.626	136.566	% 10,2
65 baino gehiago	86.607	56.012	142.619	% 10,7
ELKARTEKIDEAK GUZTIRA, ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA	742.695	594.617	1.337.312	% 100,0

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik hartzen da kontuan; aurreikuspen-planetako kideen batez besteko adina 48 urtekoa da. Batez besteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 39k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitartekoen artean, kolektiboaren % 50 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoen artean, % 11.

1.3.2- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen adina. 2018. urtea

6. koadroa

Adin-tartea	Gizonak	Emakumeak	Tartearen arabera guztikoa	%
0tik 20ra	1.601	1.102	2.703	% 0,6
21etik 25era.	6.815	4.876	11.691	% 2,4
26tik 30era	13.671	11.260	24.931	% 5,1
31tik 35era	24.028	18.296	42.324	% 8,7
36tik 40ra	37.158	26.953	64.111	% 13,2
41etik 45era.	48.402	33.575	81.977	% 16,9
46tik 50era	40.445	29.283	69.728	% 14,3
51tik 55era	35.650	28.969	64.619	% 13,3
56tik 60ra	31.443	27.053	58.496	% 12,0
61tik 65era	20.613	16.907	37.520	% 7,7
65 baino gehiago	20.114	8.033	28.147	% 5,8
ELKARTEKIDEAK GUZTIRA, ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA	279.940	206.307	486.247	% 100,0

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreko puntuan bezala, 65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik kontuan hartzen bada, enplegu-aurreikuspeneko planetako kideen batez besteko adina 46 urtekoa da, hau da, bazkide guztien batez bestekoa baino bi urte gazteagoa. Batez besteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 50ek 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitartekoen artean, kolektiboaren % 41 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoen artean, % 9.

1.3.3- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen adina. 2018. urtea**7. koadroa**

Adin-tartea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0tik 20ra	1.131	1.028	2.159
21etik 25era.	2.054	1.804	3.858
26tik 30era	7.036	6.310	13.346
31tik 35era	18.556	16.456	35.012
36tik 40ra	38.133	32.870	71.003
41etik 45era.	59.838	50.141	109.979
46tik 50era	68.277	56.088	124.365
51tik 55era	74.288	64.563	138.851
56tik 60ra	72.650	65.136	137.786
61tik 65era	53.200	45.704	98.904
65 baino gehiago	66.304	47.955	114.259
ELKARTEKIDEAK GUZTIRA, ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA	461.467	388.055	849.522

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Berriz ere, analisisan 65 urtetik beherako kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, banakako aurreikuspen-planetan parte hartzen dutenen batez besteko adina 50 urtekoa da, hau da, bazkide guztien batez bestekoa baino bi urte zaharragoa. Batez besteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 32k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitarteko artean kolektiboaren % 55 da, eta 60 urtetik gorako artean, berriz, % 13.

Aurreko datuen arabera, Enpleguko BGAEek aukera ematen dute pertsona gazteagoak sartzeko.

1.4.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak. 2018. urtea**8. koadroa**

MODALITATEA	Zenbakia	Ekarpenak	%/guztira	Prestazioak	%/guztira
BGAEEK aurreikuspen-planekin					
Elkartua	2	294.791,13	% 0,04	287.430,01	% 0,05
Enplegua	44	318.631.762,68	% 43,82	418.939.071,80	% 65,98
Banakakoa	31	408.281.272,49	% 56,14	215.696.771,01	% 33,97
GUZTIRA	77	727.207.826,30	% 100	634.923.272,82	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

8. koadroan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAEtan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak eta zenbait prestazio mediko. Enplegurako BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin har daitezke bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude taulan jasota, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat.

1.4.1- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen ekarpenak. 2018. urtea

Aurreko ekitaldiaren antzera, genero-ikuspegitik, sistemari egiten zaizkion ekarpenen kopuru osoaren % 60 gizonek egin dituzte (433.401.800,45); emakumeek, berriz, ekarpenen % 40 egin dituzte (293.806.025,85). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 4 txikiagoak direla.

1.4.2 - Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen ekarpen-tartea. 2018. urtea

9. koadroa

Ekarpenen tartea	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%
300 eurora arte	73.557	63.386	136.943	% 26
301 eta 900 euro artean	81.918	67.040	148.958	% 29
901 eta 1.800 euro artean	56.270	32.713	88.983	% 17
1.801 eta 3.000 euro artean	40.867	30.709	71.576	% 14
3.001 eta 4.500 euro artean	18.340	10.844	29.184	% 6
4.501 eta 6.000 euro artean	20.331	14.254	34.585	% 7
6.001 eta 7.200 euro artean	1.513	636	2.149	% 0,4
7.201 eta 8.000 euro artean	875	321	1.196	% 0,2
8.001 eta 24.250 euro artean	1.634	923	2.557	% 0,5
24.250 eurotik gora	895	523	1.418	% 0,3
BAZKIDEAK GUZTIRA, EKARPENEN ARABERA	296.200	221.349	517.549	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018an ekarpenak egin dituzten pertsonak bakarrik hartzen badira kontuan; % 55ek 900 € baino gutxiagoko ekarpenak egin zituzten. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 59 zen; gizonen kasuan, berriz, % 52 izan zen. 1.800 eurotik gorako ekarpenak kolektiboaren % 28k egin zituen. Kontuan izan zenbateko hori urteko 30.000 euroko soldata gordinaren % 6 dela. 2006an onartutako Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planean jasotzen denez, urteko soldata gordinaren % 6ko urteko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren baliokidea den pentsioa lortzeko.

Aurrekoaren arabera, 2018ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari ziren pertsonen 1.405,10 € eman zuten batz bestea (1.463,21 gizonen kasuan eta zertxobait gutxiago, 1.327,34 €, emakumeen kasuan).

1.4.3.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkideen ekarpenak. 2018. urtea

10. koadroa

ERRETIROA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
28.573	12.937	41.510	355.954.424,97 €	124.319.642,28 €	480.274.067,25 €
EZINTASUN IRAUNKORRA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
4.987	1.667	6.654	34.649.685,26 €	11.013.534,27 €	45.663.219,53 €
MENDEITASUNA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
11	10	21	1.028.003,04 €	135.097,72 €	1.163.100,76 €
IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
540	394	934	2.647.985,27 €	1.298.542,08 €	3.946.527,35 €
GAIXOTASUN LARRIA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
32	29	61	204.076,27 €	233.968,01 €	438.044,28 €
BAZKIDE PASIBOAK, GUZTIRA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
34.143	15.037	49.180	394.484.174,81 €	137.000.784,36 €	531.484.959,17 €
HERIOTZA					
Onuradunen kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
4.263	14.375	18.638	25.141.536,54 €	78.296.777,11 €	103.438.313,65 €
BAZKIDE PASIBOAK/ONURADUNAK, GUZTIRA					
Bazkide-kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
38.406	29.412	67.818	419.625.711,35 €	215.297.561,47 €	634.923.272,82 €

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018. urtean aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, osotasunean hartuta, prestazioetan izandako gastu osotik % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta zeuden eta % 16 bazkide arrunt baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Bestetik, prestazioen kopuru osoaren % 66 (419.625.711,35€) gizonen jaso dituzte; emakumeen, berriz, prestazioen % 34 jaso dituzte (215.297.561,47€). Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.362,16 € izan da. Baina azterketa generoaren arabera eginez

gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.320,06 €) gizonen jasotakoa (10.926,05 €) baino nabarmen txikiagoa da.

1.4.4 - Banakako BGAE-enplegua prestazioak kobratzeko modua (2018)

11. koadroa

Kobratzeko modua.	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa	Urteko batez besteko zenbatekoa	Hileko batez besteko zenbatekoa
Errenta aktuariala	31.091	232.421.499	7.475,52	623
Finantza-errenta	13.137	72.559.176	5.523,27	460
Kapitala	16.392	294.836.165	17.986,59	
Guztira	60.620	599.816.840,01		

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Prestazioak jasotzeko moduaren arabera eginez gero azterketa –errenta aktuariala, finantza-errenta eta kapitala soilik–, prestazioen zenbateko osoaren % 37 errenta aktuarial gisa jaso da (232.421.499), % 11 finantza-errenta gisa (72.559.176) eta % 46 kapital gisa (294.836.165). Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 94 dira. Horrek esan nahiko luke jasotakoaren ia % 50 kapital gisa jaso dela, nahiz eta erakunde horien sozietate-helburua Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar adina osatzea izan.

1.4.5 - BGAE-enplegua-2018ko prestazioak kobratzeko modua

12. koadroa

Kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa	Urteko batez besteko zenbatekoa	Hileko batez besteko zenbatekoa
Errenta aktuariala	26.286	231.730.303,01	8.815,73	735
Finantza-errenta	3.294	33.414.665,14	10.144,10	845
Kapitala	5.535	125.090.124,62	22.599,84	
Guztira	35.115	390.235.092,77		

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Dena den, analisisia **Enpleguko BGAEen** kasuan egiten denean prestazioak kobratzeko moduaren arabera, errenta aktuarial, finantza-errenta eta kapital gisa soilik, Enpleguko BGAEek ordaindutako **prestazioen zenbateko osoaren** % 55 errenta aktuarial gisa kobratu da (231.730.303), % 8 finantza-errenta gisa (33.414.665) eta % 30 kapital gisa (125.0965). Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 93 dira.

Ikus daitekeenez, Enpleguko BGAEen kasuan, kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala da, eta hori bat dator BGAEen helburu sozialarekin.

1.4.6 - Banakako BGAEak kobratzeko modua, 2018

13. koadroa

Kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa	Urteko batez besteko zenbatekoa	Hileko batez besteko zenbatekoa
Errenta aktuariala	4.805	691.195,68	143,85	-
Finantza-errenta	9.843	39.144.510,97	3.976,89	331
Kapitala	10.857	169.746.040,59	15.634,71	
Guztira	25.505	209.581.747,24		

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Banakako BGAEei dagokienez, berriz, % 79 kapital gisa kobratzen da; % 18, finantza-errenta gisa; eta ez da % 1era iristen errenta aktuarial gisa jasotakoa. Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 97 dira. Enpleguiko BGAEen portaera aztertzean ez bezala, banakako BGAEetan gaur egun dagoen kobrantza-modua ez dator bat errenta moduan gehiengo kobratzeko lortu nahi den helburuarekin.

Aurrekoa gorabehera, azken ekitaldian agerian geratu da banakako BGAEetako bazkideak pixkanaka prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzeko eskatzen hasi direla. Hori dela eta, aurreko taulan ez da aipatu errenta aktuarial gisa jasotako hileko batez besteko zenbatekoa, ez baita adierazgarria, bazkide pasiboek ez dutelako prestazioa urteko hilabete guztietan kobratu.

1.5.– Erreskateak, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan. 2018. urtea

14. koadroa

	BGAE elkartuak	%	Enpleguiko BGAEak	%	Banakako BGAEak	%	BGAEak, guztira
Erreskate-kopurua	7	% 0,03	113	% 0,47	24.026	% 99,50	24.146
Erreskateen zenbatekoa	10.203,03	% 0,01	2.215.570,07	% 1,44	152.120.347,64	% 98,56	154.346.120,74

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die bazkideei, bai banakako modalitatekoiei eta bai BGAE elkartuen modalitatekoiei, eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko, baldin eta 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna badute. Enpleguiko BGAEek, berriz, aurreikuspen-plan batzuetan bakarrik daukate jaso eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko aukera hori: otsailaren 23ko 5/2012 Legea (BGAEena) indarrean jarri zenean erreskaterako aukera jada bazuten aurreikuspen-planetan, zehazki.

Genero-ikuspegitik, erreskateekin pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2018. urtean erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 57 da; jasotako kopurua, berriz, % 62.

1.6 – Laburpena, generoaren ikuspegitik. 2018. urtea

Emakumeak bazkideen kopuru osoaren % 44 dira eta ekitaldiko ekarpenen % 40 egin dituzte. Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzენტuala baino % 4 txikiagoak direla.

2018an ekarpenak egin dituzten pertsonen % 55ek 900 eurotik beherako ekarpenak egin zituzten. Emakumeen kasuan, ehunekoa % 59 zen; gizonen kasuan, berriz, % 52 izan zen.

2018ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari ziren pertsonen batez besteko zenbatekoa 1.405,10 € izan zen (1.463,21 gizonen kasuan eta zertxobait txikiagoa, 1.327,34 €, emakumeen kasuan).

65 urtetik beherako kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, aurreikuspen-planetakokideen batez besteko adina 48 urtekoa da. Batez besteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

Bestetik, emakumeek prestazioen % 34 jaso dituzte. Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.362,16 € izan da. Baina emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.320,06 €) gizonek jasotakoa (10.926,05 €) baino nabarmen txikiagoa da.

Erreskateei dagokienez, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2018. urtean erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 57koa da; jasotako kopurua, berriz, handiagoa da, % 62koa.

2– AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA**2.1 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera.**

15. koadroa	2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
<u>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</u>	82	83	% 1,22	80	% -3,61	77	% -3,75
Elkartua	3	3	% 0,00	2	% -33,33	2	% 0,00
Enplegua	43	45	% 4,65	45	% 0,00	44	% -2,22
Banakakoa	34	35	% 2,94	33	% -5,71	31	% -6,06
Mistoak	2	0	% -100,00	0		0	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopurua txikitu egin da 2015-2018ko aldian. Finantza alorrean gertatu den fusio-prozesuak antzeko fusio-prozesua eragin du erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAEetan.

2.2 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera**16. koadroa**

2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
24.177.371.662,22	24.976.018.731,59	% 3,30	25.708.104.292,89	% 2,93	24.826.018.696,96	% -3,43

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018ko ekitaldian, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzea 882 milioi euro murriztu zen.

Kontuan izanik ekarpenekin sartutakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskateen ondorioz ordaindutakoaren arteko aldea -62 milioi euro izan zela ekitaldi horretan; izan ere, murrizketaren zioa, batez ere, inbertsioen emaitza negatiboa izan da.

2.3 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopuruaren bilakaera.

17. koadroa	2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
GIZONEZKO BAZKIDEAK	653.497	640.085	% -2,05	633.829	% -0,98	635.028	% 0,19
EMAKUMEZKO BAZKIDEAK	503.928	496.037	% -1,57	493.262	% -0,56	500.750	% 1,52
GUZTIRA	1.157.425	1.136.122	% -1,84	1.127.091	% -0,79	1.135.778	% 0,77

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018an, hautsi egin da aurreko ekitaldietan izandako bazkide-kopurua murrizteko joera. Joera hori ekitaldi horietan erregistratutako banakako erakundeen integrazio-prozesuen ondorio logiko bat izan zen, eta horrek berekin ekarri du hainbat plan integratzea. Bestetik, gogoan izatekoa da aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan guztira zenbat bazkide dauden erakusten dutela 17. koadroko datuek, kontuan hartu gabe pertsona bat BGAE batean edota batean baino gehiagotan dagoen. Ildo horretan, BGAEen arteko bikoiztasunak ezabatzen badira, 2018ko abenduaren 31n 822.912 pertsona zeuden babestuta aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bidez.

2.4 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen eta prestazioen bilakaera.

18. koadroa	2015	2016	% $\pm \Delta$	2017	% $\pm \Delta$	2018	% $\pm \Delta$
EKARPENAK	656.386.143,14	671.528.311,42	% 2,31	697.194.974,09	% 3,82	727.207.826,30	% 4,30
PRESTAZIOAK	624.859.612,63	644.081.021,19	% 3,08	622.105.961,23	% -3,41	634.923.272,82	% 2,06
ALDEA	31.526.530,51	27.447.290,23	% -12,94	75.089.012,86	% 173,58	92.284.553,48	% 22,90

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Taula horretan ez dira ageri erreskateak, ez eta enpleguko zenbait BGAEen kuotak eta gizarte-prestazioak ere, lehen esandako arrazoi berberarengatik: erreskateak, ez direlako prestazioak; eta besteak, ezin har daitezkeelako bigarren edo hirugarren zutabekoek multzokotzat. Alegia, gizarte-aurreikuspeneko planen ekarpen eta prestazioak jaso dira taulan.

2018. urtean, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen bidezko diru-sarrerak % 4,30 handitu ziren aurreko ekitaldikoekin alderatuz. Azken hiru ekitaldietan mantendu den joera horrek hautsi egin zuen ekarpenek 2013-2015eko aldian izandako portaera negatiboa.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homogeneoa aurreikuspen-planak dituzten BGAEak modalitateka aztertuz gero. Horixe erakusten du hurrengo koadroak.

2.4.1.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen bilakaera.

19. koadroa	2015	2016	% $\pm \Delta$	2017	% $\pm \Delta$	2018	% $\pm \Delta$
Ekarpenak guztira	656.386.143,14	671.808.760,15	% 2,35	697.194.974,09	% 3,78	727.207.826,30	% 4,30
Enplegua	277.272.123,97	275.743.185,49	% -0,55	289.303.478,57	% 4,92	318.631.762,68	% 10,14
Banakakoa	372.701.636,37	395.130.907,98	% 6,02	407.549.034,93	% 3,14	408.281.272,49	% 0,18
Elkartuak	1.012.697,88	934.666,68	% -7,71	342.460,59	% -63,36	294.791,13	% -13,92
Mistoak	5.399.684,92	0	% -100	0		0	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Erakunde elkartuak alde batera utzita, beren dimentsio apala dela medio, eta mistoak, dagoeneko desagertu direlako, azterketak enpleguko erakundeak eta banakakoak ditu ardatz.

Ekarpenek 2018an izan duten gehikuntza orokorra Enpleguko BGAEei egindako ekarpenek izan duten gorakadaren ondorio da; izan ere, banakako modalitateko BGAEei egindako ekarpenak aurreko ekitaldikoaren antzekoak dira.

Horri dagokionez, esan beharrekoa da enpleguko BGAEei egindako ekarpenen zenbatekoa eta banakakoei egindakoena antzekoak izan direla 2014. urtetik hona. Bestalde, argi ikusi da ekarpenak gutxitu egin direla 2012tik, krisi ekonomikoaren ondorioz, herritarrek aurrezteko ahalmen txikiagoa dutelako.

2.4.2– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioen bilakaera.

20. koadroa	2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
Prestazioak guztira	624.859.612,63	644.081.021,19	% 3,08	622.105.961,23	% -3,41	634.923.272,82	% 2,06
Enplegua	395.059.156,20	407.725.617,12	% 3,21	407.510.038,08	% -0,05	418.939.071,80	-% 2,80
Banakakoa	226.347.286,77	235.323.412,83	% 3,97	214.293.714,41	% -8,94	215.696.771,01	% 0,65
Elkartuak	583.879,51	1.031.991,24	% 76,75	302.208,74	% -70,72	287.430,01	% -4,89
Mistoak	2.869.290,15	0	% -100,00	0		0	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azken lau ekitaldietan ordaindutako prestazioek antzeko zifrak dituzte, eta aldi horretako batez besteko zenbatekoa 631 milioi eurokoa da.

2.5 BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera.

21. koadroa	2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
Erreskateak	203.135.781,04	181.366.999,64	% -10,72	162.161.657,73	% -10,59	154.346.120,74	% -4,82

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

14. taulan ikus daitekeenez, erreskate ia guztiak, % 98,56, banakako aurreikuspen-planetan egiten dira.

Prestazioen bat sortu aurretik metatutako eskubideak osorik edo zati batean itzultzeagatik sistematik ateratako guztizko zenbatekoa 154 milioi euro izan zen 2018an. Banakako BGAEen kasuan, urteko ordainketa guztien zati oso handi bat da. Hain zuzen, erreskatetan ordaindutakoa 2018an (152 milioi) prestaziotan ordaindutako zenbatekotik oso gertu dago (215 milioi). Banakako BGAEek erreskate bidez 2018an aurretiaz itzuli zuten dirua beren ondarearen % 1,3 inguru zen, ekitaldian egindako ekarpenen % 37, eta aurreikuspen-planek estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestaziotan ordaindutakoaren % 71. Beste ikuspegi batetik ikusita, erreskateetan ordaindutako zenbatekoa prestazio eta erreskate kontzeptuengatik funtsen artean % 41 da.

Erreskateen kopurua (partzialak eta erabatekoak) 24.146 izan zen 2018an, eta erreskateen zenbatekoa, berriz, batez beste, 6.392 eurokoa.

Horri dagokionez, esan dezakegu BGAEak estaltzen duen kontingentziaren batean erori baino lehen eskubide ekonomikoak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua adierazle ona dela sistemaren aurreikuspen-helburua zein neurritan betetzen ez den ikusteko eta beste helburu batzuekin –adibidez, finantzei eta zergei lotutako helburuekin– erabiltzen dela ikusteko. Dena den, datuetatik ondoriozta daitekeenez, erreskateen zenbatekoa txikituz doa, nabarmen, 2014tik aurrera, eta 2017an erreskatatutako zenbatekoa, adibidez, 2014an erreskatatutakoa baino % 27 txikiagoa da, gutxi gorabehera.

2.6 - BGAEen ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera.

22. koadroa	2015	2016	% ± Δ	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ
EKARPENAK (1)	656.386.143,14	671.808.760,15	% 2,35	697.194.974,09	% 3,78	727.207.826,30	% 4,30
PRESTAZIOAK (2)	624.859.612,63	644.081.021,19	% 3,08	622.105.961,23	% -3,41	634.923.272,82	% 2,06
ERRESKATEAK (3)	203.135.781,04	181.366.999,64	% -10,72	162.161.657,73	% -10,59	154.346.120,74	% -4,82
ALDEA (1)-(2)-(3)	-171.609.250,53	-153.639.260,68	% -10,47	-87.072.644,87	% -43,33	-62.061.567,26	% -28,72

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, aipatu behar da ekarpenen bidez bildutako diruaren eta ordaindutako prestazioen eta aurreikuspen-planetan egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo negatiboa duela 2015-2018 aldian. 2018an, saldo negatibo hori ia % 30 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, urte horretan ere saldo negatibo hori nabarmen murriztu baitzen.

2.7 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, bazkide kopuruaren arabera.

2018an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, batez beste, 14.750 bazkide zituzten; banakakoek, 20.915 batz beste; enpleguak, 11.044 batz beste, eta elkartuek, 744 batz beste. Horrek esan nahi du banakako BGAEen batez besteko bazkide kopurua enpleguakoen batez bestekoaren ia bikoitza dela.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek «minifundismo» handia ezkutatzen dute BGAEen kolektiboan, batez ere enpleguak BGAEen artean. Enpleguak BGAE gehien-gehienek, % 68k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 6 erakundek baizik ez du 5.000 bazkide baino gehiago. (ikusi 23. koadroa). Banakakoen artean tamainaren alde hori ez da hain larria; izan ere, Banakako BGAEen % 39k bakarrik dituzte 1.000 bazkide baino gutxiago, eta % 19a iristen dira 25.000 baino gehiago dituztenak.

23. koadroa

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak		Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztira
	Sektorekoak	Enpresa	Enplegukoak guztira		
<250		9	9	6	1
250-1.000.		21	21	6	
1.001-5.000.		8	8	7	1
5.001-25.000.		2	2	6	
>25.000	4		4	6	
Guztira	4	40	44	31	2

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2.8 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, ondarearen arabera.**24. koadroa**

Ondarea (milioitan)	Enplegua		Banakakoak	Elkartuak	Guztira
	Sektorekoak	Enpresa	Enplegukoak guztira		
<10		17	17	8	1
10-150.		18	18	15	1
150-300.		2	2	2	
>300	4	3	7	6	
Guztira	4	40	44	31	2

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertu dugunean bezala, BGAEen ondarea aztertzen dugunean ere aipatutako minifundismoa aurkitzen dugu: tamaina txikiko erakunde askok, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ia % 86k, batezbestekoaren azpiko ondarea dute (322 milioi), eta tamaina handiko gutxi daude. Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAEetan nahiz banakakoetan. BGAEen % 13k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 80 dute.

3 - AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN SEKTOREAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek ondare handia kudeatzen dute. Ikuspegi makroekonomikoari helduz, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren % 32,3ren baliokidea 2018an. Ratio horrek aditzera ematen du BGAEek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ezarpena eta garrantzia nabarmen handiagoak direla (ia laukoitza) pentsio-fondoek Espainian dituztenak baino, azken horien ondarea 2018an BPGaren % 8,9 zela aintzat hartuta. BGAEek kudeatutako aktibo kopuru horren handiak zeregin zinez garrantzitsua ematen die finantzaren ikuspegitik.

BGAEen garrantziak behera egiten du gizarte-babesaren sisteman duten dimentsio erlatiboa aintzat hartzen badugu, finantza-dimentsioa aintzat hartu beharrean. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEei egindako urteko ekarpenen diru-sarrerak BPGaren % 1 inguru dira. Ehuneko hori, besteak beste, Austria, Belgika, Alemania, Italia edo Espainiak egindako ekarpenen ehunekoaren antzekoa da, % 1 inguru. Kontuan hartu behar da beste herrialde batzuetan urteko ekarpen gordinak BPGaren % 8,2koak direla, Suitzaren kasuan; % 8koak Australian, eta % 6tik gorakoak Islandian, eta % 4koak Herbehereetan eta Ameriketako Estatu Batuetan.

EAEko 2018. urteko datuak (Gizarte Segurantzaren datuak) kontuan hartuz, ekarpenen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan egindako gastua, hurrenez hurren, osatu asmo den Gizarte Segurantzaren sistema publikoak urte horretan EAEn gizarte kotizazioen ondorioz bildutakoaren % 14 inguru eta kotizaziopeko pentsioetan gastatuaren % 7 izan ziren.

25. koadroa

	Euroak, milakotan	BPG (%)	Gizarte Segurantza (%)
Ekarpenak planak dituzten BGAEetara	727.208	1	% 14
Planak dituzten BGAEen prestazioak	634.923	1	% 7
Planak dituzten BGAEen ondarea	24.826.019	32,32	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEek gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten paperean dagoen horren alde handiaren interpretazioak hainbat azalpen ditu. Horien artean nabarmen daitezke sistema pribatua sistema publikoa baino gazteagoa dela edo hura bezain heldua ez dela, lehenengoaren orokortze falta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa, edo ekarpen-maila nahiko baxuak direla sistema publikoko kotizazioekin alderatuz.

4 – BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA**4.1 - Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna.**

Banakako modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) % 3,87 izan zen 2018an. 26. koadroan, eskuratutako errentagarritasunak agertzen dira, orientazio inbertitzailearen arabera.

26. koadroa

Batez besteko errentagarritasun haztatua, banakako planetako orientazio inbertitzailearen arabera	
Orientazio inbertitzailea	%
Errendimendu finkoko bermatuak	2,14
Errendimendu aldakorreko bermatuak	-0,06
Errenta finkoa, epe luzea	-1,4
Errenta finkoa, epe laburra	-1,79
Errenta finko mistoa	-4,24
Beste batzuk	-6,44
Errenta aldakor mistoa	-6,65
Errenta aldakorra	-11,33
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzen hartzen du	-11,83
Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira	-3,87

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Errendimendu finkoko gizarte-aurreikuspeneko plan bermatuak alde batera utzita, 2018an gainerako banakako planek errentagarritasun negatiboak –txikiagoak edo handiagoak– izan zituzten kategoria guztietan, orientazio inbertitzailea edozein dela ere.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan. Horregatik, orientazio inbertitzailearen arabera plan mota hautatzerakoan asmatzea funtsezkoa da pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Haatik, hautaketa hori oso zaila izaten da pertsona gehienentzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak, oso positiboak izan daitezke pentsio osagarri egoki bat lortzera begira.

27. koadroa

Errentagarritasuna	Banakako planen kopurua
Negatiboa	171
% 0-5	101
% 5-% 10	-
> %10	-

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

27. taulan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren banakako aurreikuspen-planen buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da. Bestetik, 28. koadroan, 2018ko abenduaren 31n zeuden banakako aurreikuspen-planen kopurua ageri da, BGAEen arabera sailkatuta. BGAE bakoitzak batez beste banakako 10 plan inguru ditu, baina planen % 75 inguru 10 BGAEtan biltzen dira.

28. koadroa

Erakundearen kodea	BGAEn izena	Plan kopurua
162	GEROCAIXA, BANAKAKO BGAE-A	55
201	BASKEPENSIONES, BANAKAKO BGAE-A	35
98	NORPENSION, BANAKAKO BGAE-A	29
106	EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAE-A	24
229	SANTANDER PREVISIÓN 1, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	22
151	SVRNEPENSION, BANAKAKO BGAE-A	18
227	BANSABADELL PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	16
211	RURAL PENSION XXI, BANAKAKO BGAE-A	13
107	BANKINTER PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	12
114	EUROPREVISIÓN, BANAKAKO MODALITATEKO BGAE-A	12
192	CASER PREVISIÓN INDIVIDUAL, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	9
117	WINTERTHUR, BANAKAKO MODALITATEKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	6
190	FINECOPENSION, BANAKAKO BGAE-A	6
92	CREDIT AGRICOLE GEROKOA, BANAKAKO BGAE-A	5
100	BILBAO EPSV INDIVIDUAL, BANAKAKO BGAE-A	4
102	GENERALI PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	4
248	DUX INVERSORES PREVISIÓN, BANAKAKO BGAE-A	4
275	AMISTRA EPSV, BANAKAKO BGAE-A	4
284	DB-ZURICH PREVISIÓN, BANAKAKO BGAE-A	4
140	MAPFRE VIDA UNO, BANAKAKO BGAE-A	3
191	CATALANA OCCIDENTE PREVISIÓN, BANAKAKO BGAE-A	3
216	SANTA LUCÍA JUBILAZIOA, BANAKAKO BGAE	3
228	GENERALI PREVISION 2, BANAKAKO BGAE-A	3
231	PREVISIÓN SANITARIA NACIONAL AURRIKUSPENA, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	3
268	RENTA 4 PREVISION INDIVIDUAL, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	3
273	MEDIOLANUM PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	3
276	BESTINVER BANAKAKO BGAE	3
277	MARCH PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	3
278	MARCH PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	3
243	N.B. EQUILIBRIO DE PREVISIÓN SOCIAL, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	2
214	FIATC PREVISIÓN, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	1
GUZTIRA		315

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

4.2 - Enplegu modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna.

Enplegu-modalitateko BGAEi dagokienez, enplegu-modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) % -2,61 izan zen 2017an. 29. koadroan, eskuratutako errentagarritasunak agertzen dira, orientazio inbertitzailearen arabera.

Aldiz, lau erakunde sektorialak (kudeaketa propioa dute) enplegu BGAE guztien ondarearen % 75 dira, eta % -2,21ko errentagarritasuna izan zuten, batez beste, 2018an. Dena den, kontuan izan behar da legediak enplegu-erakundeei aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz kontabilizatzeko, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin alderatu daitezke zuzenean banakako erakundeekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

29. koadroa

Batez besteko errentagarritasun haztatua, enpleguko planetako orientazio inbertitzailearen arabera	
Orientazio inbertitzailea	%
Beste batzuk	2,31
Errenta finkoa, epe luzea	0,81
Errenta finkoa, epe laburra	-1,81
Errenta finko mistoa	-2,96
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzen hartzen du	-4,08
Errenta aldakor mistoa	-8,15
Errenta aldakorra	-10,06
Errendimendu finkoko bermatuak	-
Errendimendu aldakorreko bermatuak	-
Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira	-2,61

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

- Orientazio inbertitzailea, bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio motak desberdina izan behar du bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteagoa bazkidea, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa, eta bazkidea zenbat eta helduagoa, inbertsioa orduan eta seguruagoa. Erretiratzeko adina hurbildu ahala, inbertsioek seguruagoak izan behar dute, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio; gaztetan, aldiz, metatzeko urte asko edukita eta arriskatzeko kapitala txikiagoa izanda, errentagarritasunik handiena bilatzeak izan behar du irizpide nagusia inbertitzeko garaian.

30. koadroa

	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskutsua		Beste batzuk	
Adina	Bermatuak	Errenta finkoa, epe laburra	Errenta finkoa, epe luzea	Errenta finkoa, mistoa	Errenta aldakorra, mistoa	Errenta aldakorra	Beste batzuk	GUZTIRA
< 36 urte								
kop.	2.796	9.429	5.503	105.169	8.343	3.457	1.345	136.042
%	% 2,06	% 6,93	% 4,05	% 77,31	% 6,13	% 2,54	% 0,99	% 100,00
36-45 urte								
kop.	16.197	32.861	17.668	222.004	21.924	10.147	6.707	327.508
%	% 4,95	% 10,03	% 5,39	% 67,79	% 6,69	% 3,10	% 2,05	% 100,00
46-55 urte								
kop.	39.908	38.709	22.119	242.364	30.689	12.959	11.376	398.124
%	% 10,02	% 9,72	% 5,56	% 60,88	% 7,71	% 3,26	% 2,86	% 100,00
56-65 urte								
kop.	36.586	36.178	20.978	198.887	19.281	10.057	11.052	333.019
%	% 10,99	% 10,86	% 6,30	% 59,72	% 5,79	% 3,02	% 3,32	% 100,00
> 65 urte								
kop.	9.275	23.254	11.822	79.247	9.090	4.584	5.347	142.619
%	% 6,50	% 16,30	% 8,29	% 55,57	% 6,37	% 3,21	% 3,75	% 100,00
Guztira								
kop.	104.762	140.431	78.090	847.671	89.327	41.204	35.827	1.337.312
%	% 7,83	% 10,50	% 5,84	% 63,39	% 6,68	% 3,08	% 2,68	% 100,00

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Irizpide hori, oro har, bete egiten da BGAEetako bazkideen kasuan. Horixe ikusten da, hain zuzen, 30. koadroari erreparatuz gero. Kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa (batik bat, epe laburreko errenta finkoan eta bermatuetan egindakoak) hazi egiten da, oro har, bazkidearen adinak gora egin ahala. 36 urte baino gutxiago dituztenek epe laburreko errenta finkoan dute inbertitua fondoen % 7 (2017an % 10); 65 urte baino gehiago dituztenen artean, berriz, ehuneko hori % 16ra igotzen da (2017an % 20). Beste horrenbeste gertatzen da 65 urtera arteko plan bermatuekin.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa 36 urte baino gutxiago dituztenek beren ondarearen % 9 inbertsio kontserbadoreetan inbertitzea (2017an ordarearen % 13), eta ehuneko hori % 90eraino iristea (2017an ondarearen % 92), errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa –hau da, arrisku ertaineko inbertsioak– kontuan hartzen badugu. Horri dagokionez, 56-65 urtekoen portaera inbertitzaitetik gertu dago. Izan ere, azken horiek zorro kontserbadoreetan ehuneko handiagoa inbertitzen duten arren (% 22), ehunekoa ia berbera da (% 88) errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan inbertitutakoa eransten badiogu.

Biztanleria gazteenaren fondo-esleipen hori ez da eraginkorra, ez delako ia batere bereizten gazteen eta helduen orientazio inbertitzailea. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 2k soilik hautatu ditu arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrek aktiboen % 75etik gorako pisua duen.

Horri dagokionez, deigarria da, aztertutako adin-tarteen barruan, hain zuzen ere kolektibo gazteena dela arriskutsutzat jo diren zorroetan ehuneko txikiena inbertitu duena. Jende nagusiaren kasuan logikoa dena logikarik gabea da gazteen kasuan; izan ere, geroan behar besteko pentsioa izateko, nahikoa kapital metatu behar da aurrena, eta gazteek, azken kapital hori lortzeko ezinbestekoa duten errentagarritasun bati uko egiten diote horrela, portaera kontserbadore horrekin inbertitzean.

Egoera horri konponbide bat eman nahi dio bizi-zikloaren inbertsio-estrategien erregulazioak, zeina BGAEei aplikatu beharreko araudian baitago jaso. Esangura horretan, ekarpen finkatuko aurreikuspen-planak artikulatzen dituzten BGAEek, banakako modalitatekoek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini behar diete erakundeko bazkide osoei, gutxienez hiru aurreikuspen-planekoa eta gehienez bostekoa, arrisku- eta etekin-konbinazio bat baino gehiago dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta bazkide bakoitzaren egoera.

Azkenik, nabarmentzekoa da bazkideen % 63k, beren adina gorabehera, errenta finko mistoko planen alde egiten dutela, zeinetan errenta aldakorreko aktiboetan inbertitutakoa % 30era iristen ez den. Errenta finko mistoko planak aukeratzen dituzten bazkideen ehunekoak % 77 da 36 urtetik beherakoetan.

4.4 - BGAEen Inbertsioen Egitura - 2018

31. koadroa

	euro	%
Errenta finkoko baloreak	12.721.515.235,65	% 51,2
Errenta aldakorreko aktiboak	9.124.036.279,84	% 36,8
Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	2.359.246.201,62	% 9,5
Gainerako aktiboak	621.220.979,85	% 2,5
Bestelako finantza-aktiboak:	24.826.018.696,96	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

4.5 - BGAEen inbertsioa EAEn (2018)**32. koadroa**

INBERTSIOA, GUZTIRA EAE-N	2.398.079.999,29
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	23.909.442.144,11
%	% 10

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek prestazioengatiko konpromisoei erantzuteko eratutako funtsen % 10 Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten jaulkitzaileen aktiboetan inbertituta daude.

4.5.1 - Enpleguko BGAEen inbertsioa EAEn (2018)**33. koadroa**

INBERTSIOA EAE, ENPLEGUA	1.614.970.995,72
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	12.565.360.398,18
%	% 13

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enplegu-aurreikuspeneko planak dituzten BGAEen kasuan, ehuneko hori % 13 da, eta ehuneko hori % 7ra jaisten da banakako BGAEetan, hurrengo taulan ikusten den bezala.

4.5.2 - Banakako BGAEen inbertsioa EAEn (2018)**34. koadroa**

INBERTSIOA EAE BANAKOAK	782.619.056,07
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	11.323.042.726,47
%	% 7

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

4.6.- BGAEen inbertsioa EAeko Zor Publikoan (2018)**35. koadroa**

ZOR PUBLIKOAREN INBERTSIOA -EAE GUZTIRA	873.914.543,36
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	23.909.442.144,11
%	% 4

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek prestazioengatiko konpromisoei erantzuteko eratutako funtsen % 4 inguru Eusko Jaurlaritzaren Zor Publikoan inbertituta daude.

36. koadroa

ZOR PUBLIKOAREN INBERTSIOA -EAE-ENPLEGUKO BGAE	591.247.076,95
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	12.565.360.398,18
%	% 5

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enplegu-aurreikuspeneko planak dituzten BGAEek % 5 daukate inbertituta, eta ehuneko hori % 2ra jaisten da banakako BGAEetan, hurrengo koadroan ikusten den bezala.

37. koadroa

ZOR PUBLIKOAREN INBERTSIOA -EAE-N-BANAKAKO BGAE-AK	282.657.039,14
ZUZKIDURA TEKNIKOAK	11.323.042.726,47
%	% 2

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

4.7 - BGAEek inbertitzen duten EAEko jaulkitzaile nagusiak

Jarraian ematen den informazioa 2018ko irailaren 30eko datuei buruzkoa da.

38. koadroa

JAULKITZAILEAK	EAE-N BGAE-N INBERTITUTAKO ONDAREA GUZTIRA	%	EAE-N ENPLEGUKO BGAE-N INBERTITUTAKO ONDAREA	%	EAE-N BANAKAKO BGAE-N INBERTITUTAKO ONDAREA	%
BBVA	472.878.152,37	% 18,2	247.403.075,30	% 14,2	225.475.077,07	% 26,1
CIE AUTOMOTIVE	23.032.167,57	% 0,9	18.414.481,50	% 1,1	4.617.686,07	% 0,5
Euskaltel	12.612.203,38	% 0,5	11.068.756,73	% 0,6	1.543.446,65	% 0,2
GESTAMP	16.692.398,61	% 0,6	13.367.492,50	% 0,8	3.324.906,11	% 0,4
EUSKO JAURLARITZA	991.304.033,30	% 38,1	648.467.039,99	% 37,3	342.836.993,31	% 39,7
IBERDROLA	71.126.805,15	% 2,7	54.705.927,49	% 3,1	16.420.877,66	% 1,9
KUTXABANK	578.301.165,21	% 22,2	421.279.259,33	% 24,2	157.021.905,88	% 18,2
LABORAL KUTXA	217.444.525,37	% 8,4	139.774.048,28	% 8,0	77.670.477,09	% 9,0
MASMOVIL	11.624.047,01	% 0,4	11.306.846,04	% 0,7	317.200,97	% 0,0
ORZA	91.813.649,99	% 3,5	91.813.649,99	% 5,3	0,00	% 0,0
TUBACEX	34.552.330,81	% 1,3	26.929.450,16	% 1,5	7.622.880,65	% 0,9
GAINERAKO INBERTSIOAK EAE-N	80.761.083,19	% 3,1	53.009.334,21	% 3,1	27.751.748,98	% 3,2
EAE-JAULKITZAILEETAN EGINDAKO GUZTIZKO INBERTSIOA	2.602.142.561,96	% 100,0	1.737.539.361,52	% 100,0	864.603.200,44	% 100,0

4.8- Administrazio-gastuak

BGAEEK eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren arabera izateaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den portzentajearen mendekoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute metatutako kapitalean epe luzera.

Horrenbestez, gastu neurritzakoa izatea da, inbertsio-estrategia egoki batekin batera, hala finantzaren ikuspegitik nola bizi-zikloaren ikuspegitik (nahiko ekarpen egiten hasita adin goiztiarretan), beste faktore erabakigarria kapital egokiak lortzeko eta nahikoa den pentsio osagarri bat atera dadin hortik.

2018an, enplegu modalitatearen eta banakako modalitatearen artean gastu-aldea handia izan da. Orain emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, modalitate bakoitzeko administrazio-gastu guztien ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza da. Aurrekoarekin bat etorritik, banakako BGAEen administrazio-gastuak % 1,22koak izan ziren ondarearen gainean.

Bestalde, enplegu-planen administrazio-gastuen batez bestekoa, ekarpen definituko planak eta prestazio definituko planak kontuan hartuta, % 0,80 izan zen. Horrek esan nahi du banakako BGAEetan administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa % 53 handiagoa dela enplegu BGAEek ekarpen finkatuko planetan gastu moduan ezarritakoa baino.

Alderaketa enplegu lau BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoarekin eginez gero (enplegu BGAEen ondare guztiaren % 75 dira sektorialak eta modalitate horretako bazkideen % 92 biltzen dituzte), kontuan izanda horiek % 0,39ko administrazio-gastuak ezartzen dituztela, ondorioa honako hau da: banakako BGAEek administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa hiru aldiz handiagoa da enplegu lau BGAE sektorialek batez beste ezarritakoa baino.

Illo horretatik, kudeaketa kolektiboa duten enplegu BGAEek abantaila argiak dituzte banakakoekin alderatuz gero. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke metatutako ondarearen edo jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egiterakoan.